



ANAI JOSE INAZIO ARRUTI ARRASTOA

Zizurkil (1931.03.21) – Irun (2021.03.28)

Hitzaren liturgiako testuak (*Astearte Santua*):
Isaias 49, 1-6 / Salmoa 70, 1-2.3-4a.5-6ab.15.17 / Joan 13, 36-38

*Jaio aurretik izan ninduen gogoan Jaunak, neure izenez deitu.
Bere eskupean babestu ninduen;
gezi zorrotz ninduen bihurtu eta geziontzian gorde.
Esan zidan: «Zu zara nire zerbitzaria, Israel,
zure bidez agertuko dut neure ospea».
(Isaiás 49, 1-3)*

Astearte Santu honetan urteko gure gogo-jardunak ari gara ospatzen. Jesusekin topo egiteko garaia dugu, gure Anai Jose Inaziorengan bere betera iritsi den topaketa. Gogora ekar dezagun gure Anaia: sentitzen dugu gure artetik joan izana, bene-benetan estimatzen baikenuen eta estimatzen baitugu. Orain, batez ere, haren fedea, gure fedea, ospatzen dugu, eta fede horretatik bizi dugu gertatua: Jainkoak, Bizia Jaunak, gure Anaia Jesusen Pazkoan partaide egin nahi izan du jada, deitu zion eta amaiera arte bere lagunkide izan zen Jesusen Pazkoan.

Nahiz eta Jose Inaziok urteak eraman gaixotasunagatik mugaturik, batzuetan iruditzen zitzaigun bere aiurri alaiak eta kemen handiak ez ziotela inoiz utziko gaixotasunari menderatzen. Eta egia da zailtasunei adorez egin ziela aurre. Erramu-igandean, ordea, gure Anaia joan egin zaigu isil-isilik, pazko-misterioaren ospakizunak bere ibilbidea hastear zuenean; Jose Inaziok egin du Jesusekin bere betiko sarrera Jerusalem Berrian.

Berea zuen tenore-ahots ederra eta sentibera betiko isildu zaigu. Bakarleri bezala entzutea gozamen hutsa zen. Ospakizun handietan beti eskatzen zitzaion. Bi abesti datozkigu gogora Jose Inazio gogoratzen dugunean, "Gure Etxea", hain ezaguna, aparte: biak agurrak dira. Bata, Agur Donibane. Bestea, Arantzazuko Agur Maria. Salle Eneak gordetzen ditu oraindik bere ahotsaren oihartzunak: "Agur, Maria, agur, agur...". Zalantzarik gabe ama Mariak jaso du Jose Inazio jada bere altzoan.

Jose Inazioren betiko atsedenen alde otoitz egitearekin batera, galde diezaiogun geure buruari: non aurkitzen zuen halako erabatekotasunez bere burua eskaintzeko kemena? Zein iturburutan sortzen ziren bere itxaropena eta bizi-irrika? Nondik, Anai bokazioari zion amodioa?

Entzun berri dugun Ebanjelioak laguntzen digu galdera horien erantzun batzuk aurkitzen. Joan ebanjelariak pertsona on bezala azaltzen digu Pedro, Kristorengana zabalik, baina ahula, une konkretuan leial izateko gai izan ez zena, eta hala ere, ondoren, bere energia guztiak eta bizia bera ere Berri Onaren alde emateko gauza izango zena. Horrelakoa zen Pedro, horrelakoak gara gu ere, horrelakoa izan zen gure Anai Jose Inazio.

Baina Ebanjelioak esan digu, baita ere, Jesusengan, Jainkoari eta mundu guztiari erabat zabalik bizi izan zen Jesusengan, topo egiten dugula "besteentzat zen pertsonarekin", Isaiasek

iragarri zuen Yahveren Zerbitzariarekin. Eta erabateko zerbitzari izan zenez, guztiontzat argi eta salbamen da, nahiz eta gu leialak ez izan. Haren maitasunezko begiradak garen bezalakoak izanik besarkatzen gaitu.

70. salmoan aldarrikatu dugunari jarraituz, Jose Inazio Jaunaren eskuetan jarri zen, eta Haren baitan aurkitu zuen gotorlekua eta babesa: Jauna izan zen haren esperantza eta segurtasuna gaztetatik eta horregatik gaur kanta ditzakegu haren bizitzan gertatutako gure Jainkoaren miragarriak. *“Amaren sabelean sortu eta bere zerbitzari izatera deitu zion”* Jaunak berak, orain beregana itzularazi nahi izan du: izan ere Zizurkileko Arrieta baserrian, duela 87 urte, harekin hasi zuen misioa bere betera eraman du.

Jose Inaziok kristau fedea Juli eta Jose Mari bere amaren eta aitarengandik jaso zuen, eta bataioan landatutako arbola pixkanaka hazten joan zen, fruituak emanez, behartsuen eta artisauen seme-alaben onerako, haiei babesa eta adiskidetasuna eskainiz. Familian gainera La Salleko Anaïen presentzia eta lekukotza izan zuen, alegia Jose Mari Arrastoa eta Felix Malkorrarena.

Jose Inazioren formazio osoa hain maitea zuen *“Gure Etxea”*rekin lotua dago. 1946an, 12 urte zituela, etorri zen etxe honetako, Nobiziatu Txikira eta habitua hartu 1950ean hartu zuen. Eskolastikatu eta beste formazio instituzionalekin batera, lortu zituen Magisteritza, Maestria Industrial (Mekanikan) eta Frantses Filologian lizentziatura tituluak. Zaragozan bizi izandako urteak izan ziren ikasketetan emandako haiek, Gran Vian eta Unibertsitate Kolegio Mayor-en, eta ondoren Frantzian. Beti gorde zituen hango oroitzapen eta harremanak. Betiko profesia Donostian egin zuen 1959an.

Bere eskola-apostolutza Gipuzkoako salletar ikastetxeetan egingo du, askotan eta egoera zail samarretan elkarteko zuzendari izanik. Hasiera batean Usurbil, Ordizia eta Beasainen; eta ondoren, eta ikastetxeko zuzendaritza bere gain hartuz, Donostiako Los Angelesen, Zarautzen eta Irungo San Martzialen. Beste hainbat urtetan, zuzendari-orde izan zen (*“Sudi”* betierekoa, berea behar zuenari adi egotea baitzen, kargurik edo pribilegio-posturik bilatu gabe), lankidetzaren paregabea eskainiz elkartean. Hemen Salle Enea bertan zuzendari-orde 12 urtetan izan zen, 1998an hona etorri ezkerotik. Eta beti tenperamentu alai eta zerbitzariaren erantzukizun ezberdinez arduratuz.

Halako batean, galdetegi bateko *“Baduzu zuk zure bizialdiaren bukaeran kontuan hartua izatea nahiko zenukeen alderdirik?”* galderari, honela erantzun zuen bihotz barren-barrendik: *“La Salleko Anaïa izan naizela”*. Eta bai, salletar eredugarria eta giza maila handikoa izan zen, Institutuaren izpiritua bikain gorpuzten zuena: fede sakona eta ardura handia hezkuntza-misioan.

Jose Inazioren leialtasunak badu ardatz nagusi bat: Nazaretoko Jesusen segimendua. Talentu eder eta ugariz hornitua izanik, bere ibilbideak argi eta garbi adierazten du bere leialtasuna ebanjelioko doakotasunez dagoela elikatua. Gure Anaïak bizia eman du mundua gizatiarragoa izan dadin eta bere zaletasun guztiek, konparazio baterako sukaldaritzak eta kantuak, zerikusia izan dute beti besteen gozamenarekin. Jose Inazioren munduan lagun hurkoa erdigune izan da beti, Ezinbesteko argamasa baliagarri gisa jokatuz, elkartea eraikitzen duten piezak bere dohainekin bat egitea ahalbidetzen dueña.

Agian, ondo definitzen duen ikono bat eskaileraren irudia da: laguntzeko beso abegikorra, mailaz maila, ahultzen ari zenari; atsedena behar zutenentzat atsedena lasaia egiteko prest. Eta zerbitzatzeko eta emateko eskailera hori bera dela eta, Jainkoak bere erreinuari auhendatu dio betierekotasun osorako. Gupidaz betea den Jainkoaren maitasunak, gure bizitzako hutsegite eta ahuldade guztien gainetik aurkitzen denak, eta hemendik gutxira ospatuko dugun Jesusen Pazkoak gonbidatzen gaituzte konfiantzan eta esperantzan oinarriturik bizitzera. Jesusen ikasle garenez iragartzen dugu bizi dugun Jainkoaren maitasuna dela eguneroko ibilbidean aurrera bultzatzen gaituena, inoiz amaituko ez den maitasuna: ez porrotek, ez mugek, ez gaixotasunek, ezta heriotzak ere.. ez dute argi eder hori itzaliko.

Eskerrak eman diezaizkiogun Jainkoari gure Anai Jose Inaziok salletar elkarteari eta Elizari eman dion guztiagatik. Bere testigutzak lagun diezagula bizitzari baikortasunez begiratzen, eta gure bokazioa leialtasunez eta eraberritutako entregaz bizitzen, salletar hezkuntza-misioan.

Eskerrak ere, eta era bereziz, bere bizitzako azken urte hauetan maitasun handiz zaindu eta lagundu diozuen pertsona guztioi.

Buka dezagun zeinu bat gogora ekarriz: Etxe honetan Jose Inazio urte askotan ostatu-zerbitzuaren erantzule izan da. Bisitariak etorri aurretik, erretiroak hasi baino lehen edo gazteen, irakasleen edota Sareko arduradunen beste topaketan aurretik, Jose Inazio lo-geletatik pasa ohi zen eta usain gozoko ambientadorea botatzen zuen: Jose Inazio bizitzan zehar Jainkoaren perfume gozoa uzten igaro da. Paulok Korintiarrei idatzitakoa bete izan du: *“Izan ere, Kristok Jainkoari eskaintzen dion intsentsuaren usaina bezala gara bai salbatzen direnentzat, bai galtzen direnentzat”* (2Ko 2,15).

Izan dezagun uste on Kristoren berpiztean. Ez, ez digu huts egingo, Jose Inaziori huts egin ez dion bezala, jada eramana baitu betiko zorionaren otordura.

*“Agur, Jose Inazio,
Agur, maite-gorputzez;
Baina amodioz ez.
Agur, Jose Inazio”.*

GIZAKI BERRIAREN GOIZA

Ez beldurrik izan,
gure ondoan dabilela dio Jaunak.
Berpiztueraren goizean,
egun berri baten lehen goizean,
behin betiko hitza eman du Bizitzaren Jainkoak.

Zu nire semea zara,
Aitaren ahotsa entzuten da berriro,
Jordaneko bataio egunetan bezala.
Hau nire semea da,
berriro esaten digu guztion Aitak,
mendiaren tontorrean aurreratu zuen bezala.
Hau Gizaki Berria da, Jesus, Berpiztua.

Bere bizian eta heriotzan,
Jainkoa gu topatzera irten da,
gu besarkatzera arineketan doa ,
bere aurpegi errukiorra erakusten du,
errukiaz aberatsa,
maitasunez eta leialtasunez bete.

Pobreenen, ahulenen, ahotsik gabekoen
eta baztertuen aldeko hautuetan,
heriotza garaitzen duen bizitza sortu da,
Jainkoaren aukerak erakusten dizkigun
Gizaki Berria jaio da.
Erresumara garamatzan Askatasunaren bidea.

Bere hitzetan, argiak eta irmoak,
profezia historikoan aberatsak,
salaketa askatzailean ausartak,
aldarrikapen salbatzaileaz ernalduak,
edo ebanjeliozko suminaz beteak,
Jainkoaren Hitza aurkitzen dugu
gugan gorpuztuta eta historia eginda.
Gizaki Berriaren hitza da,
Erresuma aurkezten digun Egia eta Justizia da.

Bere jokabideetan,
errukiorra sufritzen ari denarekin,
solidarioa behar duenarekin,
senidezkoa gizartea alde batera utzita kanporatua

izan denarekin,
benetako maitasuna hazten ari da,
Jainkoari aintza ematen diona
gizakion eguneroko bizitzan.

Maitatzen eta bizia ematen dakien Gizaki Berria da.
Jainkoak guztiontzat nahi duen bezala
beste batzuk bizi daitezten Gizaki Berria.
Erresumak proposatzen digun senidezko Bizitza da.

Jesus, Jainkoaren semea eta gure anaia, Berpiztua,
Erresumaren hasikinen Gizaki Berria.
Zu zara Bidea, Egia eta Bizitza.
Zuk deitzen diguzu Askatasun,
Justizia eta Anaitasunera.

Emaguzu zure Espiritua
Anaia Nagusia.
Pazkotik pasaraz gaitzazu.
Jarri krisian gure bizitza erosoak.
Barkatu gure segurtasun faltsuak.
Bota denok ditugun idoloak.
Astindu gure kateak.
Utz gaitzazu bakarrik segimenduaren gurutzearen
aurrean.

Zure aukerak gureak izan daitezten,
has dezagun berriz bidea.
Zure hitzak gureak izan daitezten,
berraurkitu dezagun egia.
Zure jarrerak gureak izan daitezten,
praktikan jar ditzagun maitasuna, Bizitza.

Ez beldurrik izan, dio Jaunak,
Jesus Gizaki Berriak, gure ondoan dabilen berak.
Berriro hasteko, bete gure buru eta bihotzak
etengabeko konbertsioaz,
bete, goizeko argiaren antzera,
isuritako Espirituaren dohainaren konbertsioaz,
Berpiztuera eta Bizitzaren,
Gizaki Berriaren lehen Goizean.
Erresumaren egunsentia.

(M. Murua)

